

6. ATALA: BEZEROAREKIKO HARREMANAK



Ogia Tolosan jarriko dugun dendan salduko dugu. Horretarako 140 m² inguruko lokal bat alokatuko dugu. Bertan lantegia, biltegia eta denda jartzeko. Horretaz gain, etxez etxe banatzeko aukera eskainiko dugu. Honek bezero finko batzuk bermatzeko aukera emango digu. Guretzat errentagarria izan dadin, etxez etxeko banaketa horretan garraioaren kostua ere kobratuko diegu bezeroei. Haientzat gure okindegia ez da izango beste okindegien modukoa, izan ere, gure produktuak irin ekologikoa eta ama oreka erabiliz egingo ditugu. Bezero batek ez ohiko ogi bat nahi badu, guregana jo dezake eta eskaera berezia egin.

Horrelako beharrak dituen bezeroak, gure okindegia deskribatuko luke gure lehiakideek saltzen ez dituzten produktuak saltzen dituen ekoizle bat bezala. Gure ustez bezeroek konfiantzazko ekoizle modura ikusiko gaituzte eta horrela gurekin duten harremana sendotuko dute.